

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

BAT MATXIN PARRAT

Bat: Matxin Parrat.
Bi: Mitxel Eperdi.
Hiru: kolko bete diru.
Lau: iko melau.
Bost: koxkotean koxk.
Sei: korta bete behi.
Zazpi: buru bete bazpi.
Zortzi: katilu bete zorri.
Bederatzi: katuaren larrua eratzi.
Hamar: mar-mar.

① Inguratu abestian agertzen diren animaliak:

katua	bazpia(bartza)	Sagua
zaldia	txakurra	behia
zorria	zezena	txoria

② Zenbat zenbaki agertzen dira?

③ Lotu gezien bidez:

kolko bete	bazpi (bartz)
korta bete	diru
buru bete	zorri
katilu bete	behi

④ Zeri egiten dio hozka? Adierazi:

<input type="checkbox"/> buruari	<input type="checkbox"/> diruari
<input type="checkbox"/> ileari	<input type="checkbox"/> larruari
<input type="checkbox"/> garondoari	<input type="checkbox"/> pikuari

⑤ Osatu esaldia hauetakoren batekin:

asko samar / mar-mar / atzamar

Hamar: _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

BEHIN JOAN NINTZEN

Behin joan nintzen
azokara,
erosi nuen txakur bat;
txakurrak txau txau txau
nik txitxi berari:
ekarri nuen etxera.

Behin joan nintzen
azokara,
erosi nuen txistu bat;
txistuak fli fli fli
txakurrak txau txau txau:
eraman nion amari.

Behin joan nintzen
azokara,
erosi nuen txori bat:
txoriak txio txio,
nik berriz negar lodi:
ihes egin zuen basora.

① Zer erosi zuen azokan? Inguratu:

txerria	txalupa	txakurra
txanoa	txistua	txerria
txoria	txangurrua	txistorra

② Nola egiten dute? Lotu gezien bidez:

txakurrak	fli fli fli
txistuak	txio txio
txoriak	txau txau txau

③ Idatzi BAI ala EZ:

Txakurrak haragia jan zuen. _____
Txakurrak txistua jotzen zuen. _____
Amari txistua eraman nion. _____
Txoriak negar egin zuen. _____

④ Nork egin zuen negar? Zergatik?

⑤ Zenbat aldiz joan zen umea azokara?

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

EGUN BATEAN

Egun batean, ikusi nuen
eulia soinua jotzen,
haren ondoan, zoraturikan,
arkakusoa dantzaten,
zimitza berriz, dotore jantzita,
errefreskuak partitzen,
haien ondoan, bi zorri handi
barrez eztulka itotzen.

MIXMIX KATUA

Katuen herrixkan bizi da
gure Mixmix katua.
Egunero goiz jaikitzen da,
garaiz ibiltzea atsegin du eta.
Ureztailuaz bainatzen da,
txukun orraztu, amari lagundu
eta gosaldu egiten du:
arrautzak, esnea eta ogia.
Motzila ondo aztertu,
ezin zaio ezer ere falta,
eta eskolara iristean,
denak agurtu: "Miau, miau!"

① Lotu gezien bidez:

eulia	dantzatzen
arkakusoa	errefreskuak partitzen
zimitza	barrez itotzen
bi zorri	soinua jotzen

② Nola du izena bigarren olerkiko katuak?

③ Idatzi E egia bada eta G gezurra bada:

Olerkiko katua goiz jaikitzen da zeren:

- Ez baitu lorik egiten gauez.
- Garaiz ibiltzea gustatzen baitzaio.
- Saguek esnatu egiten baitute.
- Gosaria kenduko dioten beldur izaten baita.

④ Jarri odenan katuaj egiten duena. Idatzi 1, 2, 3 eta 4:

- | | |
|-----------------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> Jaiki. | <input type="checkbox"/> Amari lagundu. |
| <input type="checkbox"/> Gosaldu. | <input type="checkbox"/> Bainatu eta orraztu. |

⑤ Eskolara iristean, zer esaten du katuak ikaskideak agurtzeko?

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

A, a, a

Arto gorri koxkorra
Oilarraren gandorra
Gorritzen da bixkorra.

E, e, e

Nik artoa dut maite
Ahoan du bibote
Arta bixarrez bete.

L, i, i

Artirina nahi dut nik
Egiteko talotxin
Gazte gozoz beterik

O, o, o

Arto goxo potolo
Hosto azpian lolo
Begi gorri poxpolo.

U, u, u

Artaputzak pin-pan-pun
Zartaginetik joan nahi du
Jauzi eta istilu.

① Zein da abestiko protagonista?

② Zerk egiten du pin-pan-pun?

③ Nolakoa da artoa?

④ Inguratu egiazkoak diren esaldien zenbakiak.

1. Oilarrak gandorrea artoa du.
2. Artoaz gazta egiten da.
3. Artoak bizarra du.
4. Artoak begi urdinak ditu.

⑤ Zer egin nahi izaten du artoak? Adierazi.

- Zartaginetik kanpora irten.
- Zartaginean sartu, goxo – goxo.

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ASTOA IKUSI NUEN

①

Astoa ikusi nuen
betaurrekoekin,
buruan txapela eta
gabardinarekin,
ile luzea eta
bibotearekin,
hizketan egon nintzen
atzo berarekin.

②

Astoak esan zidan
triste zegoela,
oso zatarra zela
bere ikastola,
berak gure gelara
etorri nahi zuela,
gure artean ondo
konponduko zela.

③

Baietz esan nion nik
lasai etortzeko,
arkatza eta bloka
dendan erosteko,
astoa izan arren
trankil egoteko,
asko ikasi eta
txintxo portatzeko.

① Inguratu astoak soinean zituenak:

gabardina
gona
bibotea

arkatza
betaurrekoak
ile motza

ile luzea
zapatak
txapela

② Zergatik zegoen triste astoa?

③ Zer nahi zuen astoak?

④ Idatzi **E egia** bada eta **G gezurra** bada:

- Hurrekin gaizki moldatuko zela uste zuen astoak.
- Astoari asko gustatzen zitzaion bere ikastola.
- Eskolara joateko, astoak arkatza eta koasernoa behar zituen.
- Lagunak esan zion ezin zuela hurren eskolara joan astoa zelako.

⑤ Zein aholku eman zion lagunak astoari?

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

DENDARIK DENDA

①

Dendarik denda nabil
janarien bila.
Eskolatik irtenda,
ez da lan makala.
Arrautza eta esne,
gatz eta okela;
amatxoren zerrenda
bai luzea dela!

②

Honekin bukatu da
gaurko erosketa.
Dena ordaindu eta
sobera lau pezeta.
Orain erosiko dut
horko piruleta,
lana egin ondoren,
merezi dut eta.

① Zer esan dio amak erosteko?

esnea

gazta

azukrea

haragia

② Zenbat diru geratu zaio erosketak egin ondoren?

③ "Ez da lan makala". Zer esan nahi du? Adierazi.

- ___ Eskolan lan gutxi egin duela.
- ___ Eskolatik makal-makal irten dela.
- ___ Lan handia dela erosketak egitea.
- ___ Eskolan lan handia egin duela.

④ Jarri ordenan esaldiak. Horretarako, idatzi **1, 2, 3** eta **4**.

- ___ Denda batetik bestera ibili zen.
- ___ Eskolara joan zen.
- ___ Erosketak egiten amaitu zuen.
- ___ Gozokia erosi zuen.

⑤ Osatu:

Amatxoren zerrenda oso _____ zen, eta hainbeste lan egin
eta gero, _____ zuenez, gozoki bat erosi zuen.

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

NON EGITEN DU?

①

-Aita, non egiten du kukuak habia?
-Txantxangorri habian lapurtuz tokia trala-lara lapurtuz tokia.

②

-Ama, non egiten du pospolinak habia?
-Gari soro erdian poliki jarria trala-lara poliki jarria.

③

-Aita, non egiten du txepetxak habia?
-Gaztain zulo gordean goroldioz josia, trala-lara goroldioz josia.

④

-Ama, non egiten du gau hontzak habia?
-Elizako sabaian sagutxo josia, trala-lara sagutxo josia.

① Non egiten dituzte txoriek habiak? Lotu geziaren bidez.

kukuek
pospolinek
txepetxek
hontzek

gari soroen erdian
elizetako sabaian
txantxangorrien habian
gaztainondoaren zuloetan

② “**Elizako sabaian, sagutxo josia**”. Zer esan nahi du? Adierazi.

- ___ Elizetako sabaian sagutxoek egiten dituztela.
- ___ Sagutxoak josten aritzen direla elizetako sabaian.
- ___ Elizetako sabaian sagutxo asko izaten dela.
- ___ Sagutxoek josten dituztela elizetako sabaian.

③ Inguratu egiazko esaldien zenbakiak.

1. Gariak zoro-zoroak dira.
2. Gari sorosk poliki-poliki jartzen dira.
3. Pospolinek poliki-poliki, kontu handiz, jartzen dituzte habiak.
4. Txepetxak zuhaitzaren barruan egiten du habia.

④ Nortzuei kentzen diete lekua kukuek?

⑤ Osatu:

Txepetxek gaztainondoaren zuloetan egiten zituzte _____ eta, gero, _____ z betetzen dituzte, txitak goxo egoteko.

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HARTZAK OSO LOTIAK DIRA

Iritsi da hotza, eta hasiak dira hartzak negua pasatzeko babes bila. Haitzulo bat izaten dute aterpe, eskuarki, eta goroldioz eta belar lehorrez estaliko dute, goxo-goxo.

Elurteak hasi baino lehen sartuko dira hartzak babeslekuan, elurretan oinatzik ez uzteko. Izan ere, bestela, etsaiak atzetik joango zaizkie.

Gero... lo egingo dute. Hilabete batzuk emango dituzte lo, ezer ere jan gabe.

Udaberria iritsitakoan, hartzak babeslekuetik argal-argal eginda irten eta ohiko bizimoduari ekingo diote: bapo jan eta edan, sarri-sarri bainatu eta, ahal duten guztietan, lo kuluxka egingo dute...

Hartzak oso lotiak dira!

① Zein urte sasoi ematen dute hartzek babeslekuan?

Udaberria

Udazkena

Uda

Negua

② Osatu:

Hartzak babeslekuan sartuko dira, etsaiak haien _____ ez jarraitzeko.

③ Idatzi **E** egia bada eta **G** gezurra bada.

___ Hartzak oso lotiak dira, zeren haur guztiek baitutuzte pelutxezko hartzak lo egiteko.

___ Hartzek hilabete batzuk ematen dituzte lo, ezer ere jan gabe.

___ Hartzek hilabete batzuk ematen dituzte jaten, lorik egin gabe.

___ Hartzek hilabete batzuk ematen dituzte jaten eta lo.

④ Zein urte sasoitara iritertzen dira hartzak babeslekuetik?

⑤ Zer egiten dute hartzek babeslekuetik irtendakoan? Inguratu.

1. Ur asko edan.
2. Gutxi-gutxi jan.
3. Lorik egin ez.
4. Sarri-sarri bainatu.

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA: DATA:

IZEN DEITURAK:

JOSTAILUAK

①

Jostailurik gabe daude
Ainhoa eta neba txikia,
baina beraiek egingo dute
behar duten guztia.
Zuraz eta kaxaz
sortu dute gurdia;
makilaz eta sokaz
egin dute zaldia;
eta kortxoz eta hariz,
habia eta txoria.

②

Paper mordoia hartuta,
hegazkin eta itsasontzia,
txapel dibertigarria,
kometa eta edalontzia.
hondarrezko gaztelua,
buztinezko puxtaria...
Horrelaxe jostatzen dira
Ainhoa eta neba txikia.

MARRAZKIA

③

-Esadazu, aitona,
marraskia al da hau?
Ardia zen egin nahi nuena
eta honek dirudi astoa.
-Zaude lasai, alajainkoa!
Egin duzu eta nahikoa.
Hartu berriro papera
eta egin lehenagokoa.
Eta izan beti gogoan
aitonak orain esandakoa:
ekin eta ekin dabilenak du
arrakasta aldekoa.

① Nortzuk dira "Jostailuak" olerkiko protagonistak?

_____ eta _____ .

② Nola lortu dituzte jostailuak?

___ Negar eta negar eginez, norbaitek eros diezazkien.

___ Beraiek egin dituzte.

___ Zintzoak izanda, Olentzerol ekar diezazkien.

③ Zein material erabili dituzte hurrek? Lotu gezi bidez.

Makilak eta sokak

Puxtaria

Papera

Gurdia

Zura eta kaxak

Zaldia

Buztina

Hegazkina

④ Osatu:

Marraskia egin zuen mutikoak _____ marrastu nahi zuen,
baina egindakoak _____ zirudien.

⑤ Zein aholku eman zion aitonak mutikoari?

___ Gauzak behin eta berriz egin behar direla, ondo egin arte.

___ Ez dela ardirik marrastu behar.

___ Astoak marrastu behar direla.

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

AKERRA IKUSI DUGU

Akerra ikusi dugu baratzean jaten.
Makila ikusi dugu aker hori jotzen.
Sua ikusi dugu makila erretzen.
Ura ikusi dugu su hori itzaltzen.
Idia ikusi dugu ur hori edaten.
Soka ikusi dugu idi hori lotzen.
Sagua ikusi dugu soka karraskatzen.
Katua ikusi dugu sagua ehizatzen.
Txakurra ikusi dugu katua izutzen.
Urritza ikusi dugu txakurra astintzen.
Lorea ikusi dugu urritza apaintzen.

① Inguratu abestian agertzen diren animaliak:

txakurra	idia	zaldia
ardia	behia	txerria
sagua	katua	akerra

② Idatzi **E** egia bada eta **G** gezurra bada.

___ Makila baratzean zegoen, lasai-lasai.
___ Suak makila erre zuen.
___ Suak ura edan zuen.
___ Sokak sagua ehizatu zuen.

③ Lotu gezien bidez.

katuak	soka karraskatu
sagua	ura edan
sokak	sagua ehizatu
idiak	idia lotu

④ Zertan zebieln txakurra?

___ Katuarekin jolasean.
___ Katua beldurtzen.
___ Katua ehizatzen.

⑤ Zerk apaindu zuen urritza? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HAU EGURALDI ZOROA! (1)

Gaur igandea da. Aita, ama eta haurrak paseatzen ari dira. Kanean dabilta. Kanean zuhaitz asko dago. Pozik dabilta gure lagunak.

Baina halako batean euria gogor hasi du. Bai suerte txarra! Gure lagunak korrika hasi dira. Toldo baten azpian sartu dira. Aita eta ama atzean daude, umeak aurrean. Aitak betaurrekoak kendu ditu.

- Hau zaparrada – esaten du Itziarrek.

GALDERAK:

1. Zer da gaur? _____
2. Noiz da igandea? _____
3. Zer ari dira aita, ama eta haurrak? _____
4. Non dabilta? _____
5. Zer dago kanean? _____
6. Non dago zuhaitz asko? _____
7. Nola dabilta gure lagunak? _____
8. Noiz hasi du euria? _____
9. Nola hasi du euria? _____
10. Nor hasi da korrika? _____
11. Non artu dira gure lagunak? _____
12. Nor sartu da toldo azpian? _____
13. Zer kendu du aitak? _____
14. Nork kendu ditu betaurrekoak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HAU EGURALDI ZOROA! (2)

Eguraldi txarra dago. Zer egin? Amak kotzera joan nahi du. Non daude giltzak? Aitak poltsikoan sartu ditu, baina buru txarra du.

- Nork ditu giltzak? – galdegiten du.
 - Poltsikoan dituzu! - erantzuten du amank.
- Aitak giltzak ateratzen ditu.

GALDERAK:

1. Zer dago gaur? _____
2. Nolako eguraldia dago gaur? _____
3. Zer nahi du amak? _____
4. Nora joan nahi du amak? _____
5. Zer sartu du aitak poltsikoan? _____
6. Nork sartu ditu giltzak poltsikoan? _____
7. Zer du aitak? _____
8. Nolako burua du aitak? _____
9. Nork du buru txarra? _____
10. Nork galdegiten du? _____
11. Nork erantzuten du? _____
12. Zer ateratzen du aitak? _____
13. Nork ateratzen ditu giltzak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HAU EGURALDI ZOROA! (3)

Umeak putzu batean sartu dira. Ederki dabilta uretan. Ama, ordea, ez dago pozik. Hankak busti dituzte eta haserre dago. Mikelek botak dituela esaten du. Baina prakak ere busti ditu. Hori esan du amak eta Mikel triste dago orain.

GALDERAK:

1. Nor sartu da putzu batean? _____
2. Non sartu dira umeak? _____
3. Nola dabilta uretan? _____
4. Zer busti dute umeek? _____
5. Nola dago ama? _____
6. Zer du Mikelek? _____
7. Nork ditu botak? _____
8. Zer esaten du Mikelek? _____
9. Nork esaten du botak dituela? _____
10. Nola dago Mikel orain? _____
11. Nor dago triste orain? _____
12. Noiz dago triste Mikel? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HAU EGURALDI ZOROA! (4)

Aita kotxera joan da eta gabardinak atera ditu; euritakoa ere bai. Mikelek gabardina handia jantzi du eta Itziarrek txikia. Gurasoek ez dute gabardinarik eta euritakoa hartu dute. Aitak bere eskuan du euritakoa. Gero, ordea, eguzkia atera da eta eguraldi ona dago. Haurrak jolasean ari dira. Tximeletak eta txoriak ere pozik dabilta. Hau eguraldi zoroa!

GALDERAK:

1. Nor joan da kotxera? _____
2. Nora joan da aita? _____
3. Zer atera du aitak? _____
4. Zer jantzi du Mikelek? _____
5. Zer jantzi du Itziarrek? _____
6. Nork du euritakoak bere eskuan? _____
7. Zer du aitak bere eskuan? _____
8. Non du aitak euritakoa? _____
9. Noiz atera da eguzkia _____
10. Zer atera da gero? _____
11. Nolako eguraldia dago? _____
12. Zertan ari dira haurrak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

JOAKINA (1)

Emakume bat janari dendan sartu da. Joakina da. Andre lodi eta txikia da Joakina. Eskuan boltsa du eta janariak erosi nahi ditu. Denda barruan gizon bat dago. Dendaria da, noski. Dendariak ile gutxi du buruan; eta aurpegian betaurreko borobilak ditu.

-“Zer nahi duzu?” – galdegiten du dendariak; baina Joakinak ez daki zer erosi. Mahai gainean mahats ederra ikusten du Joakinak eta prezioa galdegiten du. Dendariak euro bat balio duela erantzuten du. Orduan kilo erdia jartzeko esaten du Joakinak.

GALDERAK:

1. Nor sartu da janari dendan? _____
2. Nor da emakume hori? _____
3. Nolako andrea da Joakina? _____
4. Nork du ile gutxi buruan? _____
5. Zer du dendariak aurpegian? _____
6. Nolako betaurrekoak ditu? _____
7. Zer ikusten du Joakinak mahai gainean? _____
8. Nolako mahatsa ikusten du Joakinak? _____
9. Non ikusten du Joakinak mahats ederra? _____
10. Zer galdegiten du Joakinak? _____
11. Zer erantzuten du dendariak? _____
12. Zer esaten du Joakinak? _____
13. Zenbat kilo jartzeko esaten du Joakinak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA: DATA:

IZEN DEITURAK:

JOAKINA (2)

Dendariak zorro batean sartu du mahatsa. Joakinak mahai ondoan, ezkerrean, aza handi bat ikusten du. Itxura ona duela esaten du. Erosi nahi du, baina senarrak ez du azarik jan nahi.

Apalean gazta bat dago. Merkea dela esaten du dendariak eta Joakinak zati txiki bat hartzen du, senarrak gustora jaten baitu gazta.

GALDERAK:

1. Non sartu du dendariak mahatsa? _____
2. Nork sartu du mahatsa zorroan? _____
3. Zer sartu du dendariak zorroan? _____
4. Non ikusten du Joakinak aza? _____
5. Zer ikusten du Joakinak ezkerrean? _____
6. Zer esaten du Joakinak? _____
7. Zer dago apalean? _____
8. Non dago gazta? _____
9. Zer esaten du dendariak? _____
10. Zer hartzen du Joakinak? _____
11. Nork hartzen du zati txiki bat? _____
12. Nork jaten du gustora gazta? _____
13. Zer jaten du gustora senarrak? _____
14. Nola jaten du gazta senarrak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

JOAKINA (3)

Joakinak ez du familia handirik; gutxi bizi dira etxean eta nahiko dira hiru ogi txiki. Bi porru ere eskatzen ditu.

Mahai ondoan, eskuinean, sagarrak daude. Dendariak merkeak direla esaten du. Noski, dendariak hori esaten dute beti! Dena omen dute merke eta ona. Sagar hauek ere merkeak omen dira. Baina Joakina ez dago konforme; garestiak direla entzuten du. Ez ditu nahi.

GALDERAK:

1. Joakinak familia handia al du? _____
2. Zenbat bizi dira etxean? _____
3. Zer eskatzen du Joakinak? _____
4. Non daude sagarrak? _____
5. Zer dago eskuinean? _____
6. Zer esaten du dendariak? _____
7. Nork esaten du sagarrak merkeak direla? _____
8. Nork esaten du hori beti? _____
9. Noiz esaten dute hori dendariak? _____
10. Zer dute merke eta ona dendariak? _____
11. Nolakoak dute dena? _____
12. Konforme al dago Joakina? _____
13. Zer erantzuten du Joakinak? _____
14. Nolakoak direla erantzuten du? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA: DATA:

IZEN DEITURAK:

JOAKINA (4)

Joakinak mahatsa, gazta, ogiak eta porruak erosi ditu. Orain, ordaindu nahi ditu. Dendariak paperean kontua egiten du eta sei euro eta laurogeitalau zentimo direla esaten du. Joakinak boltsa irekitzen du, baina kartera ez dago barruan.

- Ai ene! Etxean utzi dut dirua! – esaten du.

Joakina andre txoriburua dela pentsatzen du dendariak.

GALDERAK:

1. Zer erosi nahi du Joakinak? _____
2. Non egiten du kontua dendariak? _____
3. Nork egiten du kontua paperean? _____
4. Zer egiten du paperean dendariak? _____
5. Zer esaten du dendariak? _____
6. Zenbat euro direla esaten du? _____
7. Zer irekitzen du Joakinak? _____
8. Nork irekitzen du boltsa? _____
9. Kartera barruan al dago? _____
10. Zer utzi du Joakinak etxean? _____
11. Non utzi du Joakinak dirua? _____
12. Zer pentsatzen du dendariak? _____
13. Nork pentsatzen du Joakina andre txoriburua dela? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ANDER (1)

Ander eta laguna kafetegian daude. Laguna aulkian eserita dago eta Ander zutik.

Oso eguraldi beroa dago eta Ander egarri da. Lagunak zerbeza eskuan hartu eta honela esaten du:

- Zerbeza nahi al duzu?

Anderrek ezetz esaten du; ez du zerbezarik nahi, kafea nahi du. Baina ez kafe beroa, ez; hotza nahiago du.

Lagunak orduan kafe hotz bat eskatzen du.

GALDERAK:

1. Non daude Ander eta laguna? _____
2. Nor dago kafetegian? _____
3. Non dago eserita laguna? _____
4. Nor dago eserita aulkian? _____
5. Nola dago Ander? _____
6. Nolako eguraldia dago? _____
7. Nor da egarri? _____
8. Nork hartu du zerbeza eskuan? _____
9. Zer hartu du lagunak eskuan? _____
10. Nork esaten du ezetz? _____
11. Zer nahi du Anderrek? _____
12. Nolako kafea nahiago du Anderrek? _____
13. Zer eskatzen du orduan lagunak? _____
14. Nork eskatzen du orduan kafe hotz bat? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ANDER (2)

Ander ere aulki batean eseri da eta orain biak, Ander eta bere laguna, eserita daude. Mahai gainean zerbeza dago. Bi lagunak hizketan ari dira. Anderrek galdera hau egiten du:

- Adizu, txomin, non duzu kotxe zaharra?

Txominek Seat zaharra saldu egin duela erantzuten du. Beste bat erosi duela. Bai, egia da. Txominek orain kotxe berria du, oso polita eta egokia.

GALDERAK:

1. Nor eseri da aulki batean? _____
2. Non eseri da Ander? _____
3. Nor dago eserita orain? _____
4. Nola daude orain biak? _____
5. Zer dago mahai gainean? _____
6. Non dago zerbeza? _____
7. Zertan ari dira bi lagunak? _____
8. Nor ari da hizketan? _____
9. Zer erantzun du Txominek? _____
10. Nork erantzun du Seat zaharra saldu egin duela? _____
11. Nork esaten du beste bat erosi duela? _____
12. Zer du orain Txominek? _____
13. Nork du orain kotxe berria? _____
14. Nolako kotxea du orain Txominek? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ANDER (3)

Hemen da berriz kafetegiko zerbitzaria. Berehela etorri da. Oso gizon serioa da, baina atsegina. Kafe katilua eskuan du.

- Jaunak, hemen duzue kafe hotza.

- Mila esker. Utzi ezazu hor, mesedez – erantzuten du Txominek.

Eta kafetegiko zerbitzariak mahai gainean uzten du kafea.

GALDERAK:

1. Nor da gizon serioa? _____
2. Nor da gizon atsegina? _____
3. Nolako gizona da kafetegiko zerbitzaria? _____
4. Zer du eskuan zerbitzariak? _____
5. Non du kafe katilua zerbitzariak? _____
6. Nork du eskuan kafe katilua? _____
7. Nolakoa da kafea? _____
8. Nork erantzuten du "mila esker"? _____
9. Nork uzten du mahai gainean kafea? _____
10. Zer uzten du mahai gainean zerbitzariak? _____
11. Non uzten du zerbitzariak kafea? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ANDER (4)

Ander ez dago isilik. Pozik dago kafetegian eta hizketan ari dira gelditu gabe.

- Esan Txomin, nolakoa da zure kotxe berri hori? Polita al da?

Txominek baietz esaten du, oso polita dela. Citroen zuri bat da eta kalean dago aparkatuta. Bi lagunek zerbeza eta kafea edan dute eta kotxera joan dira. Kotxean sartu dira eta orain buelta bat ematera doaz.

GALDERAK:

1. Ander isilik al dago? _____
2. Triste al dago Ander kafetegian? _____
3. Nor dago pozik kafetegian? _____
4. Zertan ari da Ander? _____
5. Nola ari da Ander hizketan? _____
6. Zer esaten du Txominek? _____
7. Non dago aparkatua kotxea? _____
8. Zer edan dute bi lagunak? _____
9. Nora joan dira bi lagunak? _____
10. Nor joan da kotxera? _____
11. Non sartu dira bi lagunak? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

KARRASPIO

Karraspio ere bazen norbait.

Baserri baten inguruan zebilen erbi baten atzetik eta "danba! danba!" bi tiro bota zituen – eta benetan bota zituen honek, bi tiroko eskopeta bait zuen -.

Baserriko atean etxeko nagusia zegoen. Tiroak entzun eta segundu bat pasa baino lehen hantxe ikusi zuen erbi handi bat arin-arin ihesi, osasun onez.

Pixka bat geroxeago Karraspio ere agertu zen.

- Zuk bota al dituzu tiroak? – galdegin zion baserritarrak.

- Bai – erantzun zuen Karraspiok -, erbi bati bota dizkiot eta ia-ia harrapatu dut.

Bigarren tiroak belarri bat kendu dio.

- Bai? Belarri bat kendu al diozu? – farrez baserritarrak -. Ondo egin duzu, bai horixe! Zertarako behar zituen, bada, hiru belarri?

GALDERAK:

1. Non zebilen ehizean Karraspio?_____

2. Noiz ikusi zuen baserritarrak erbia?_____

3. Karraspioren iritziz, huts egin al du bietan?_____

4. Zer esaten dio txantxetan baserritarrak Karraspori?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ESKOPETA KARGATU?

Bixente ere ez zen ehiztari makala.

Behin lagunekin hizketan ari zen:

- Atzo goizean ere uso pila bota nuen: berrogeitamar bai gutxienez. Hura zen hura! Uso bandak pasa eta pasa ari ziren, gelditu gabe. Eskopeta hartu nuen eta danba! batera, danba! bestera, danba! hara, danba! hona...

- E, e... – esaten dio lagun batek -, zer da hori, danba eta danba? Eta eskopeta kargatu noiz?

- Eskopeta kargatu? Zer uste duzu, ordea? Horrenbeste uso pasa eta eskopeta kargatzeko astirik banuela, ala?

GALDERAK:

1. Norekin ari zen hizketan behin Bixente? _____

2. Esaten duenez, zenbat uso bota zituen? _____

3. Hainbeste uso ikusi zuenean, zer egin zuen? _____

4. Eskopeta kargatzeko astirik ere ez zuen. Zergatik? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

OHAR GARRANTZITSUA

Burokrazia ez da ona izaten. Paperak gora eta behera ibiltzen dira holakoetan, mahai batetik bestera eta bulegotik bulegora. Bakoitzak bost edo sei firma behar ditu. Arazorik txikienak ere bide luzea egin behar du.

Eta, noski, mila funtzionario behar dira horretarako, paper guztiak bete eta firmak egiteko.

Funtzionario horiek alfer fama izaten dute. Berandu sartzen omen dira lanera. Gero, egunkariak irakurri, lau edo bost firma egin eta berehala ateratzen omen dira kafetxo bat hartzera... eta bihar arte!

Hori dela eta, ministro batek ohar hau jarri omen zuen ministerioko bulego guztietan:

“Ez irten, faborez, sartu baino lehen”.

GALDERAK:

1. Burokraziak berehala konpontzen al ditu arazoak?_____

2. Zertarako behar dira horrenbeste funtzionario?_____

3. Langile fama al dute funtzionarioek?_____

4. Zer egiten dute bulegoan sartu eta gero?_____

5. Non ipini zuen ministroak oharra?_____

6. Zer esaten du oharrak?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

LAGUNTZAILE ETA GUZTI

Ministro baten iloba ministerioan hasi da lanean. Osabaren laguntzaz sartu da, noski. Aste batzuk pasa eta gero honela dio:

- Lehen, lanpostu ona nuela uste nuen. Ez bait nuen ezer egin behar egun osoan. Baina benetan lanpostu ona oraingoa da: hori bera egiteko laguntzaile bat ere jarri didate.

GALDERAK:

1. Nola sartu zen ministerioan gure gizona? _____

2. Noiz esaten du lanpostu ona duela? _____

3. Zergatik uste zuen lanpostu ona zuela? _____

4. Lehen, lanpostu egokia zuen. Okerragoa al da oraingoa? _____

5. Zertarako jarri diote laguntzailea? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ZORATU EGINGO NAIZ

Eugenio saltoki handi batean ari da lanean. Saltokiak sei solairu ditu eta jende asko ibiltzen da beti gora eta behera gauzak erosten.

Aszentsoreko mutila da Eugenio: atea ireki eta itxi, botoiak zapaldu... horretan ari da goizetik gaueraino.

Oso mutil isila da Eugenio. Baita alferra ere. Ez zaio gustatzen jendearekin hitz egitea. Horregatik, nazkatua dabil lan horretan, jendea eten gabe ari bait zaio galdezka:

- Barka, mutil, ba al dakizu zer ordu den?

Eta ordua esan behar beti.

Egun batean saltokiko nagusiari zer gertatzen zaion esaten dio eta, mesedez, aszentsorean erloju bat ipintzeko eskatzen dio. Nagusiari ez zaio gaizki iruditzen eta erloju handi bat ipintzen du aszentsore erdian, edozeinek ikusteko moduan.

Orain, ordea, okerrago geratu dira gauzak Eugeniorentzat.

- Adizu, mutik, ordu ona al da hori? – galdegiten dio batek.

- Ondo al dabil erlojua? – beste batek.

- Atzeratuta al dabil? – hirugarrenak.

- Ez al dago aurreratua?

Zoratu egingo da Eugenio gaixoa...!

GALDERAK:

1. Eugenioren saltokia denda koxkorra al da?_____

2. Zergatik behar da aszentsorea?_____

3. Nolakoa da Eugenioren lana, nekagarria ala aspergarria?_____

4. Zer eskatu dio Eugeniok nagusiari?_____

5. Egin al du nagusiak Eugenioren nahia?_____

6. Hobeto al dago Eugenio? Zergatik?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

SARRERA BILA

Igande arratsalde batean partidu interesgarria jokatzen zen gure herriko futbol zelaian. Ekiporik onenek jokatzen zuten eta partidua irabazten zuenak lehen saria jasoko zuen.

Hara bildu ziren futbol zale denak purua ezpainetan eta apostu handiak eginaz. Inoiz baino giro beroagoa zegoen. Hango aupa, txalo eta zarata!

Tribunako atean zegoen atezainak hamar bat urteko mutil koskor bat ikusi zuen poliki eta beldurrez bezala inguratzen.

- Bakarrik al zatoz? – galdetu zion harriturik atezainak.
- Bai, bakarrik nator, baina hemen dut sarrera – erantzun zion mutilak txartela erakutsiz.

Atezainak ezin zion, noski, sarrera galerazi eta pasatzeko esan zion txartelean zulo bat egin ondoren. Mutikoa pozik eta saltoka pasa zen barrura. Atezainak zerbait arraroa somatu zuen eta dei egin zion:

- Baina, ezin dut ulertu. Nola etorri zara bakarrik, horren txikia izanik? Zure aitari ez al zaio futbola gustatzen?
- Futbola gustatu? Horixe! Futbol zale amorratua izan da beti.
- Eta nola ez da, bada zurekin etorri?
- Etxean geratu delako... sarrera galdu du eta hantxe dabil bila, erotu beharrez.

GALDERAK:

1. Nork jokatzen zuen partidua?_____
2. Zer jasoko zuen irabazleak?_____
3. Nolako giroa zegoen?_____
4. Nok ikusi zuen mutila?_____
5. Atezainak, noiz esan zion haurrari pasatzeko?_____
6. Zergatik harritu zen atezaina?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

HORRELA IKASIKO DUZUE!

Ipar Amerikako aberats berri batek Europara etortzeko gogo bizia zuen. Egun batean Bartzelonara joateko aukera izan zuen. Lantegiko negozio importante batzuk egin behar zituen han.

Lehenbiziko eguerdian jatetxe ospetsu eta dotore batera joan zen bazkaltzera. Janari garestienak eskatu zituen eta ederki bazkaldu zuen. Edariak ere ez zituen merkeenak eskatu. Inguruko mahaietako jendea harriturik zegoen.

Bukatu zuenean, hirurogei euro utzi zituen isilka, kopa baten azpian, zerbitzariarentzat.

Zerbitzariak dirua ikusi zuenean, harritu egin zen. "Eskupeko hau handiegia da – pentsatu zuen - . Gizon hau konfunditu egin da".

Zintzoa zen zerbitzaria eta ez zuen dirua hartu. Makurtu eta belarrira mintzatuz honela esan zion amerikano aberatsari:

- Barkatu, jauna, konfunditu zarela uste dut. Diru hori...

- Ez, ez – moztu zion serio amerikanoak -, ez naiz konfunditu. Nahita utzi dut propina txikia, zerbitzua ez bait da oso ona izan. Horrela ikasiko duzue eta hurrengoan hobeto zerbituko duzue.

GALDERAK:

1. Zein aukera izan zuen amerikanoak? _____
2. Janari merkeak eskatu al zituen? _____
3. Nolako edariak edan zituen? _____
4. Zein jende zegoen harriturik? _____
5. Norentzat utzi zuen amerikanoak dirua? _____
6. Eskupeko txikia utzi al zuen? _____
7. Zer pentsatu zuen zerbitzariak harrituta? _____
8. Zergatik ez zuen dirua hartu zerbitzariak? _____
9. Hirurogei euro eskupeko egokia al da amerikanoaren ustez? _____
10. Konturatu gabe utzi al zuen eskupeko hura? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

TONTO ZORIONTSUA

Gaurko egunean ez da hain erraza tonto izatea. Denek azkarrak izan nahi dute. Ni, ordea, tonto izan naiz beti eta tonto izaten jarraitu nahi dut.

Txikia nintzenean, neretzat izaten zen postrerik onena:

- Tarta zatirik handiena Luisitorentzat utziko dugu – esaten zuen amak-. Erdi tontoa da eta guk ematen ez badiogu jan gabe geratuko da gizajoa.

Nere anaiak azkarragoak ziren, baina postre txikiagoa zuten beti.

Handiagoa egin nintzen eta lehen bezain tonto jarraitzen nuen. Eskolara hasi eta nota txarrak ekartzen genituenean aitak ipurdia berotzen zien nere anaiei; ni berriz, lasai geratzen nintzen.

- Alferrik da hau jotzea – esaten zuen aitak-; oso motza da eta zigortuz gero, lehen baino motzago geratuko zaigu.

Horrela, bada, aurrera joan ziren egunak, asteak eta urteak. Gauza batzuetan berdinak gara tontoak eta azkarrak, eta egun batean ni ere ezkondu nintzen.

Nere andrea benetan itsusia da eta oso zakarra; ez da jendearekin atsegina. Ni tontoa naiz, ordea, eta berdin zait. Isil-isilik egoten naiz beti eta berak agintzen du etxean... etxean eta bere aitaren lantegi handian. Lantegian ere, etxean bezala, berak agindu eta nik paperak firmatu... firmak bota eta bota eta diru asko irabazi: hori da nere bizimodua.

Hilaren azkenean sobre lodia jasotzen dudanean, urrutira begiratu eta tonto aurpegia jartzen dut...

GALDERAK:

1. Tarta zati txikiak jaten al zituen Luisitok?_____
2. Norentzat izaten zen postrerik onena?_____
3. Anaiek Luisitok baino postre handiagoa jaten al zuten?_____
4. Handiagoa egin zenean, azkarragoa bihurtu al zen Luisito?_____
5. Mutil-zahar geratu al zen Luisito?_____
6. Etxetik kanpora ere agintzen al du Luisitoren emazteak?_____
7. Lan astuna al du Luisitok?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

AZTERKETA ZAILA

Udaberriko goiz eguzkitsu batean neska talde bat autobusa hartzera zihoan, eskolara joateko.

Goiz zen oraindik, baina nahiko bero zegoen eta neskatilek ez zuten lanerako gogo handirik.

- Hau eguraldi ederra! Hondartzara joango al gara? – esan zuen batek, geltokira iritsi zirenean.

- Ez da ideia txarra – erantzun zuen neska potolo batek -. Hementxe gelditzen da hondartzarako autobusa ere.

Eta hondartzara joan ziren denak, inori ezer esan gabe. Hantxe egon ziren eguzkitan eguerdira arte.

Arratsaldean eskolan agertu zirenean, maistrak deitu zituen:

- Zer gertatu zaizue goizean? Non izan zarete?

- Zera... autobusari gurpila zulatu zaio eta bide erdian geratu gara.

Maistra zaharrak hori entzutean bekokia zimurtu zuen; berehala, ordea, honela esan zuen irrifarrez:

- Ederki, ederki. Baina goizean azterketa izan dugu eta zuek orain egin beharko duzue.

Neskak gelan banatu zituen. Azterketak galdera bakarra zuen:

- Zein gurpil zulatu zaio autobusari?

GALDERAK:

1. Neskek, zertarako hartu behar zuten autobusa?_____
2. Noiz proposatu zuen neska batek hondartzara joatea?_____
3. Zer erantzun zuen neska potoloak?_____
4. Beste geltoki batera joan al ziren hondartzako autobusa hartzera?_____
5. Zenbat ordu pasa zituzten, gutxi gora-behera, hondartzan?_____
6. Noiz deitu zituen maistrak?_____
7. Zer erantzun zioten neskek maistrari?_____
8. Zenbat galdera jarri zituen azterketan?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

EZIN LORIK EGIN

Iturri jauna jakintsu handia zen, atzerrian ezagunagoa bere herrian baino, munduko unibertsitatetarik famatuenetan ibilia zen irakasten eta dozenaka liburu zituen Fisika gaiez idatziak.

Oso gizon despistatua zen, ordea, eta batzutan gauza farregarriak egiten zituen.

Egun batean irakasle lagun baten etxera joan zen afaltzera. Afaria amaitu zutenean egongelara pasa ziren eta afalondo luzea egin zuten, sutondoan eserita kontu kontari. Pozik zeuden elkarren berriak entzunik.

Etixerantz abiatzeko garaian, ordea, euria gogor hasi zuen eta lagunak piska batean egoteko esan zion Iturriri.

- Ahul samar zabiltzala esan zidan lehengoan zure emazteak eta ez zaizu euritan ibiltzea komeni.

- Hori esan al zizun? Ez egin kasurik, oso ondo nago...

Euria, ordea, gero eta gogorrago ari zuen eta piska batean geratu zen. Azkenean, lagunak eta honen emazteak gaua beren etxean pasatzeko esan zioten fisikoari, gela libre bat bazutela eta hantxe egingo zuela lo. Jakintsuak ez zien trabarik egin nahi eta ezetz esan zien hasieran, baina lagunaren ardura eta kezka ikusirik azkenean baiezkoa eman zien.

Senar-emazteak gela prestatzera joan ziren jakintsua egongelan utzirik. Itzuli zirenean, ordea, ez zuten han aurkitu. Harritu egin ziren oso eta ez zekiten zer egin.

Handik ordu erdira txirrinak jo zuen eta senar-emazteak korrika joan ziren atea irekitzera. Gure jakintsua zen, goitik behera bustia.

- Badakizue... – esan zien lagunari barkamena eskatuz bezala -, pijama bila joan naiz etxera. Pijamarik gabe ezin bait dut lorik egin...

GALDERAK:

1. Ezaguna al zen jakintsua bere herrian?_____
2. Norengana joan zen afaltzera?_____
3. Nola igaro zuten afalondoa?_____
4. Zer esan zion jakintsuaren emazteak lagunari?_____
5. Jakintsuak, zergatik esan zien ezetz hasieran?_____
6. Noiz eman zien baiezkoa?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

SUERTE TXARRA

Negu hura oso gogorra izan zen. Ez zen inon lanik; janariak aurkitzea ere oso zaila zen. Inork ez zuen dirurik eta eguneroko ogi puska lortzea ez zen batere erraza.

Egunkariak egunetik egunera berri txarragoak zekartzaten.

Adolfok behintzat zaldi bat bazuen eta pozik zegoen. Zaldia eduki arren, ordea, ez zen askoz hobeto bizi. Izan ere, nondik atera hari emateko belarra eta pentsua? Belarrik ez zuen eta pentsua erosteko dirurik ere ez.

Janaria urritzen hasi zitzaion. Lehen baino gutxiago ematen zion eta halere zaldiak itxura berbera zuen eta karga lehen bezain ondo eramaten zuen.

Hori ikusirik poztu egin zen Adolfo: "Janaria gutxitu diot eta berdin berdin jarraitzen du. Gero eta gutxiago emango diot eta ohituko da".

Honela, egunero jana gutxituz zihoan eta, itxuraz, zaldia ohitu egiten zen.

Azkenean, zaldia jan gabe bizi zela zirudien.

Egun batean, ordea, bizkar gainean egur karga handia zekarrela, bide bazter batean hila geratu zen zaldi gaixoa.

- Lastima – esan zuen penaz Adolfok -. Hau zoritxarra! Oraintxe ikasi du jan gabe bizitzen eta... hil egin behar!

GALDERAK:

1. Janari asko zegoen negu hartan?_____
2. Nolako berriak zekartzaten egunkariak?_____
3. Zaldia edukita, hobeto bizi al zen Adolfo?_____
4. Zergatik?_____
5. Nola konpondu zuen arazoa?_____
6. Gutxiago janda, lan gutxiago egiten al zuen zaldiak?_____
7. Azkenean, zer zirudien?_____
8. Nolako karga zekarren hil zenean?_____
9. Non hil zen?_____
10. Zergatik hartu zuen pena Adolfok?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

URRUTI

1914.eko Gerra Nagusian gertatu zen. Gudua luze eta zakar zihoan. Alemania eta Frantziaren arteko mugan trintxera luze eta sakonak egin zituzten. Gudariak trintxeretan bizi zirela esan zitekeen. Hilabete asko zeramaten handik mugitu gabe, hamar orduko txandak eginaz.

Goitik balak eta kainoi bonbak pasatzen ziren. Etengabeko zaratak belarriak zulatzen zizkien gudariei. Egunkariak beti berri berberak ekartzen zituzten: hildakoak hainbeste zirela, zaurituak honenbeste... eta ez zekitela hura noiz bukatuko zen.

Gudariak ez zeukaten beste egitekorik: trintxeran sartu eta tiroak bota, edozein momentutan balaren batek jo eta bertan gelditzeko arriskupean. Eta hori zoritxarrez maiz gertatzen zen.

Egun batean soldadu batek, han egoten aspertua eta batez ere hango zaratak beldurtua, ihes egitea erabaki zuen. Bere gauzak bizkarrean hartu eta atzerantz abiatu zen trintxeran barrena. Ordu erdia zeramanean, ofizial batekin topo egin zuen. Aurpegi txarra jarri zuen honek:

- Nora zoaz, mutila?
- Badakizu jauna... borroka ez zait gustatzen eta frentetik urrundu nahi nuen, ahalik eta urrutienera iritsi!
- Baina, lotsagabe hori! Ez al dakizu ni nor naizen? Jenerala nauzu!
- Hara! – orduan soldaduak harridura handiz-. Ez nuen uste horren urrutira iritsia nintzenik!

GALDERAK:

1. 1914eko Gerra laburra izan al zen?_____
2. Zer egiten zuten soldaduek?_____
3. Nolako berriak zekartzaten egunkariak?_____
4. Zeren arriskuan bizi ziren soldaduak?_____
5. Gudari asko hiltzen al zen trintxeretan?_____
6. Zergatik aldegin zuen soldaduak?_____
7. Norantz jo zuen?_____
8. Noiz egin zuen topo ofizialarekin?_____
9. Nora iritsi nahi zuen soldaduak?_____
10. Zergatik harritu zen soldadua?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

LEHEN BAINO HOTZAGO

Idazle ezezagun batek aspaldiko lagun zahar bat aurkitu zuen behin kalean. Urteak ziren elkar ikusten ez zutela eta, horregatik, oso poztu ziren bi lagunak kalean topo egin zutenean. Adiskidea besarkatu ondoren honela esan zion idazleak:

- Gogoratzen al zara literaturako maisuaz? Idazteko esaten zigun, idazteko egunero zerbait.
- Bai, gogoan dut. Ikasle guztiei esaten zien hori.
- Nik kasu egin nion eta orain idazlea naiz, nobelagilea, Hori esan eta kartera irekiz liburu bat atera zuen, bere azken nobelaren ale bat.
- Tori, zuretzat – esan zion lagunari – erregalatzen dizut.

Eta hitz hauek idatzi zizkion lehen orrian:

“Nere aspaldiko lagun zahar Gorka Ariztimendiri, adiskidetasun beroz”.

Handik lau hilabetera bigarren eskuko liburu zaharren denda batean sartu zen eta liburu merkeenak ikusten ari zela, bere lagunari erregalatu ziona aurkitu zuen. Lagunaren esker gaiztoak oso mindu zuen idazlea eta liburua erosita berriro bidali zion lagunari lehengo eskaintzaren azpian beste hau idatzirik:

“Nere aspaldiko lagun zahar bezain txar Gorka Ariztimendiri, lehen baino adiskidetasun hotzagoz”.

GALDERAK:

1. Zer esaten zien literaturako maisuak ikasleei? _____

2. Nori esaten zion hori? _____

3. Inork entzun al zion kontsejua maisuari? _____

4. Zer eman zion idazleak lagunari? _____

5. Zer aurkitu zuen idazleak liburu zaharren dendan? _____

6. Bigarren aldian, pozik bidali al zion liburua lagunari? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ERDI TONTOA

“Bustingorri” artzai gaztea erdi tontoa omen zen. Gutxitan joaten zen elizara, aspertu egiten bait zen. Elizan beti gauza berdinak esaten dituzte eta...

Egun batean, halere, konfesatzera joan zen gure mutila.

Poztu egin zen apaiza, Bustingorri aurrean ikusi zuenean.

- Zer duzu, Bustingorri? Ez zara aspaldian etorri. Nirekin haserre zinela uste nuen...

- Bada, badakizu, erdi tontoa naiz, baina nik ere batzutan egiten ditut okerrak, bihurrikeriak,...

- Zuk okerrak?

- Bai, badakizu, ni erdi tontoa naiz eta...

- Bai, bai, erdi tontoa zara. Eta zer?

- Bada, batzutan gau iluna da eta gutxi ikusten da. Eta, badakizu, ni erdi tontoa naiz eta...

- Bai, bai, zer gertatzen da gau iluna denean?

- Bada, gutxi ikusten da eta nik, konturatu gabe, lagunaren txabolatik ardi bat edo beste hartu eta nere txabolara eramaten dut. Badakizu, ni erdi tontoa naiz eta...

- Eta ez al duzu inoiz alderantziz egiten? Ez al duzu inoiz ardiren bat zure txabolatik lagunaren txabolara pasatzen?

- Bai zera! Hori ez, jauna! Ni erdi tontoa naiz, ez tonto osoa!

GALDERAK:

1. Pozik egoten al zen Bustingorri elizan?_____

2. Zergatik aspertzen zen elizan?_____

3. Zergatik poztu zen apaiza?_____

4. Zer uste zuen apaizak?_____

5. Askotan izaten al da gau iluna?_____

6. Zer egiten zuen Bustingorrik batzutan?_____

7. Zergatik ez zituen bere ardiak lagunaren txabolara eramaten?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

PIRATEN ATZETIK

Oihal guztiak zabaldu zituen "Goizeko Izarra"ren tripulazioak eta haize bolada batek puztu zituen, lehertzeko zorian dagoen globo baten antzera.

- "Aingura jaso!" – agindua eman zuen Jose Antonio Etxebarriak, "Goizeko Izarra"ren kapitainak. Eta Gorrik aingura jasotzearekin batera, ziztu bizian abiatu zen belaontzia iparralderantz.

San Frantzisko aldera zihoazen; zalantzarik gabe hura zen dortoka lapurren helbidea. Jatetxe txinarretan saltzen zituzten dortokak prezio onean eta aspaldian zebiltzan lapur haien arrastoaren bila.

Bakoitzak bere zereginari heldu zion: kapitainak norabidea markatzen zuen, Imanolek lema zeraman bitartean. Gorrik aparailuen lanak burutu zituen, Xaguxahar, Periko bizkar gainean zuela, sukaldean bazkaria prestatzen hasi zenean.

Bi egunetako haize boladak bultzada handia eman zien, baina Panamako kostaldean zeudela, haizea gelditu egin zen bat-batean.

Lau egun pasa zuten leku hartan, ia mugitu ere gabe.

Bostgarren egunaren arratsaldean, Gorrik jo zuen alarma.

- "Ostertzean laino beltz bat!".

GALDERAK:

1. Norantz abiatu zen "Goizeko Izarra", Gorrik aingura jasotzearekin batera?_____

2. Non saltzen zituzten itsaslapurrek dortokak?_____

3. Bakoitzak bere zereginari heldu zionean, zer egokitu zitzaion Xaguxaharrari?_____

4. Zer gertatu zen "Goizeko Izarra" Panamako kostaldean zegoela?_____

5. Zer gertatu zen lehenbizi?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

MEDUSAKO KAPITAINA

Oso gizon ausarta zen Nikasio Matxinbarrena. Itsasertz guztiak miatuak zituen batetik bestera, han-hemenka lapurretak eta sarraskiak eginez. Itsasoko haize erauntsiek eta arriskuek ez zuten beldurtzen eta Medusa, bere itsasontzi gorria, azkar abiatzen zen itsaso batetik bestera.

Medusak harri eta zur uzten zituen hari begira geratzen ziren guztiak, noiznahi bandera beltza jasotzen bait zuen, garai bateko piratek egiten zuten modura.

Galapagoetatik amen batean ailegatu zen San Frantziskoko porturaino, eta denborarik galdu gabe, laster hasi zen bere soto eta bodegetan gordeak zituen dortoka gaixoak nori salduko ote zizkion arakaten.

Piratarik ausartena, tratanterik maltzurrena, estafadorerik handiena, horixe duzue Nikasio Matxinbarrena, Medusako kapitaina.

GALDERAK:

1. Nola ezagutu zituen Nikasio Matxinbarrenak itsasertz uztiak? _____

2. Galapagoetatik nora iritsi zen Medusa? _____

3. Zertan hasi zen Nikasio San Frantziskora iritsi bezain laster? _____

4. Nolakoa zen Medusako kapitaina? _____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

ZIKLOI BAT

Ia ez zuten oihalak jasotzeko astirik ere izan. "Goizeko Izarra" hamar metroko olatu erraldoi batek hartu eta indar ikaragarri astinduz, hurrengo olatu gaindiezina bidali zuen.

- Kabinan sar zaitzte eta leihatilak itxi! – agindu zuen garrasika Jose Antoniok.
- Ordu bete barru neu irtengo naiz! – ihardetsi zion Gorrik.

Bere burua soka batez lotu zuen txopan eta, haizeari aurre eginez, Jose Antoniok lemari tinko helduta, "Goizeko Izarra"ri bere kabuz joaten utzi zion, olatuek suntsi ez zezaten.

Ordu bete pasa zen Gorri, Jose Antoniori erreleboa ematera atera zenerako; une hartan tximista batek jo eta itsasontziko masta txikitu zuen txotx bat balitz bezala.

- Olatuei segi, Gorri, iparraldera goaz eta! – esanez, kabinan sartu zen Jose Antonio atsedean hartzera.

Eta bata besteari erreleboa emanaz, hogeitamabi ordu pasa zirenean, bat-batean urdinu egin zen zerua, baretu itsasoa eta haize garbi batek bultzatu zituen oso gertu zegoen San Frantziskoko portu aldera.

GALDERAK:

1. Zer esan zien Jose Antonio Etxebarriak tripulaziokoei garrasika?_____

2. Noiz txikitu zuen tximistak masta?_____

3. Nolakoa zen Goizeko Izarra astindu zuen olatua?_____

IRAKURKETA ETA ULERMEN ARIKETAK

FITXA ZENBAKIA:	DATA:
IZEN DEITURAK:	

TXIBI ETA BERE ASTOA

Iritsi dira Ameriketara Txibi eta bere asto maitea. Osaba Perikoren etxera joan dira biak. Orain siestan dago. Osaba Periko 25. pisuan bizi da. Txirrinaren hotsa entzun duenean jaiki eta atea irekitzera joan da. Ilobari musu handi bat eman eta esan dio:

- Kaixo, Txibi! Zer moduz? Bai asto polita hauxe!

Asko gustatu zaio osabari Txibiren astoa. Pozik erosiko luke.

Astoa oso nekaturik iritsi da Ameriketara. Baineran garbitu eta ohean sartu dute. Orain lo dago.

Hamabost egunetan elkarrekin ibili dira Periko, Txibi eta astoa. Oso gustora ibili ere, Ameriketako txoko guztiak bisitatuz.

Baina bukatu dira oporrak eta esan dio Txibik osabari:

- Agur, osaba Periko! Astoa eta ni etxera goaz.

Eta osaba Perikok esan dio orduan Txibiri:

- Aizu, utzi ezazu hemen astoa eta zoaz hegazkinez etxera. Neuk ordainduko dizut bidaia.

Eta hegazkinez etorri da Txibi etxera. Han geratu da astoa osaba Perikoren etxeke balkoian.

GALDERAK:

1. Nora iritsi dira Txibi eta astoa? _____

2. Zenbatgarrengo pisuan bizi da osaba Periko? _____

3. Zenbat egunetan ibili dira elkarrekin? _____

4. Nola itzuli zen Txibi etxera? _____

5. Zer gertatu zen astoarekin? _____
